

## Euskadi Osorako Erabakiak Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA  
ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

1851

AGINDUA, 1989.eko ekainaren 27koa, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuarena, Administrazio eta Lege Arloko Euskarako Itzultzaile-Diploma sortzen duena, 16/83 Legeko 6. atalean ezartzen diren ondorioetarako.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritzaren 1986.eko irailaren 29ko Erabakiz onartutako programa garatzen aritu izan da Administrazio eta Lege Arloko Itzultzaile Eskola; hiru ikasturteetan zehar garatu dela programa hori. Bestalde, irailaren 23ko 203/1986 Dekretuz sortu zen Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen barruan eratuta egon da Eskola hori hasiera-hasieratik. Ondorioz, lehenengo ikasle taldeak, ikasturte honetan amaitu ditu bere ikasketak Eskola horretan.

Honako hauek kontutan hartuz: eman diren ikaske-ten maila eta horien iraupenaldia, eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen Errejimen Juridikoari buruzko 16/1983 Legeak eta bai aipatu den 203/86 Dekretuko 15. atalak ere, Funtzio Publikora sartzeko merezimendu-balioa izango duten egiaztagiri eta diplomak emateko ahalbideak ematen dizkietela Erakunde horri. Ondorioz, beharrezkoa da, diploma hori sortzea.

Horiek horrela, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritzaren proposamenez, honako hau

XEDATU DUT:

*Lehenengoa.* — «Administrazio eta Lege Arloko Euskarako Itzultzaile-Diploma» sortzea, Agindu honek hartzen duen eremu barruan eta ezartzen dituen ondorioetarako.

*Bigarrena.* — Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Zuzendariak emango du, H.A.E.E.-ko Zuzendariaren 1986.eko irailaren 29ko Erabakiz onartu eta Administrazio eta Lege Arloko Itzultzaileen Eskolaren programa akademikoak hartzen dituen hiru ikasturteak gainditu dituzten ikasleen aldeko «Administrazio eta Lege Arloko Euskarako Itzultzaile-Diploma» hori.

*Hirugarrena.* — Merezimendu balioa eman ahal izango zaio «Administrazio eta Lege Arloko Euskarako Itzultzaile-Diploma»-ri, Euskal Autonomi Elkarte Administrazio Publikoetako lanpostuak betetze eta horietarako langileak aukeratze-prozesuak burutzerakoan.

Gasteiz, 1989.eko ekainak 27.

Lehendakaritza, Zuzentza  
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,  
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA  
Y DESARROLLO AUTONOMICO

1851

ORDEN de 27 de Junio de 1989, del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, por la que se crea el Diploma de Traductor Jurídico-Administrativo de Euskera, a los efectos previstos en el artículo 6 de la Ley 16/83.

La Escuela de Traductores Jurídico-Administrativos, encuadrada en el seno del Instituto Vasco de Administración Pública desde su creación, Decreto 203/1986 de 23 de Setiembre, ha venido desarrollando su programación a lo largo de tres cursos lectivos en los que está dividido el correspondiente programa aprobado por Resolución de 29 Setiembre de 1986 de la Dirección del Instituto Vasco de Administración Pública, finalizando en este año, por consiguiente, la primera de las promociones sus estudios en la citada Escuela.

Teniendo en cuenta el nivel de los estudios impartidos, la duración de los mismos, y considerando la posibilidad legalmente reconocida por la Ley 16/1983 sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública, de otorgamiento de certificados y diplomas valorables como mérito para el acceso a la Función Pública, así como el artículo 15 del Decreto 203/86 ya citado, hace necesario la creación de este diploma.

Por ello, a propuesta del Director del Instituto Vasco de Administración Pública

DISPONGO:

*Primero.* — Crear el «Diploma de Traductor Jurídico-Administrativo de Euskera» en los términos y a los efectos previstos en la presente Orden.

*Segundo.* — El «Diploma de Traductor Jurídico-Administrativo de Euskera», será expedido por la Dirección del Instituto Vasco de Administración Pública a favor de todos aquellos alumnos que hayan superado los tres cursos lectivos de que consta el correspondiente programa académico de la Escuela de Traductores Jurídico-Administrativo, aprobado por Resolución de la Dirección del I.V.A.P., de 29 de Setiembre de 1986.

*Tercero.* — El «Diploma de Traductor Jurídico-Administrativo de Euskera» podrá ser valorado como mérito tanto en los procesos de provisión como de selección de puesto de trabajo de las diferentes Administraciones Públicas radicadas en la Comunidad Autónoma Vasca.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de Junio de 1989.

El Consejero de Presidencia, Justicia  
y Desarrollo Autonómico,  
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.